



UME ALAIA

adopzio-familien elkarte
asociación de familias adoptivas

UME ALAIA adopzio familien elkarte da eta bere helburu nagusia, adopzio familiek aurki ditzaketen balizko oztopo edo arazoei aurre egiteko tresnak, gomendioak eta zerbitzuak eskaintzea da.

13 UME ALAIA Elkartearekin solasean:

—Kaixo, Pello. Zer moduz?

—Ondo.

—Aizu galdera bat dut zuretzat, zu non sortu zinen?

—Ezetz asmatu!

—Asmatu egin behar dut, e? Brasilen!

—Ezzzzz.

—Etiopian!

—Ezzzzz.

—Txina!

—Ezzzzz.

—Ez? ba ez dakit ba ...

—Ni amaren sabelean sortu nintzen zu bezala, eta Euskal Herrian bizi naiz zu bezala!

—Aaaa...Euskal Herrian! Eta euskaraz mintzatzen zara ni bezala ...

—Familia berri bat daukat EHan eta haien bihotzean bizi naiz egunero!

—Eta gustatuko litzaizuke zu jaio zinen lurraldera bueltatzea egunen batean ...

—Egunen batean bertara joango naiz nire Euskal Herriko familiarekin ...

—Eta ni joan naiteke?

—Pentsatuko dugu!

—Ume alaiak zara gero, ez daukazu esan beharrik!

MUNDU OSOAN
JAIO GAREN
EUSKAL HERRIA
GARA



14 UME ALAIA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Xabier Sukia

Ahotsak: Esti Markez, Iñigo Goikoetxea eta Asier Gozategi

Asian daude Txina
Vietnam eta Yemen
han jaiotakoa naiz
ta bizi naiz hemen

Afrikan daude Ghana
Congo eta Gabon
nire partez guztiei
muxu eta gabon!

Ama baten sabeletik munduaren zabalera,
familia berri baten magalera
gurasoen bihotzean berriz mundura sortzean
handitzen ari naiz egun bakoitzean

Ume alaiak, gure sustraiak, atera plazara!

Mundu denak kabitzen diren
Euskal Herria gara

Amerikan sortua
hantxe Brasilian
noizbait joango gara
denok familian

Munduan jaio naizen
Euskal Herria naiz
euskaraz bizi naizen
ume alaia naiz

Ama baten sabeletik munduaren zabalera,
familia berri baten magalera
gurasoen bihotzean berriz mundura sortzean
handitzen ari naiz egun bakoitzean

Ume alaiak, gure sustraiak, atera plazara!
Mundu denak kabitzen diren
Euskal Herria gara

Ume alaiak, ahizpak anaiak, atera plazara!
Familia handi bateko
ume alaiak gara